



Obra egin bitartean
segurtasuna
eta osasuna
koordinatzeko
zerbitzuak
lizitatzeko
gomendioak,
eraikuntza-
obretako
gutxieneko
segurtasun- eta
osasun-xedapenak
ezartzen dituen
urriaren 24ko
1627/1997 Errege
Dekretuaren
aplikazio-eremuan

Obra egin bitartean segurtasuna eta osasuna koordinatzeko zerbitzuak lizitzatzeko gomendioak, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan



Barakaldo, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua / Título: Obra egin bitartean segurtasuna eta osasuna koordinatzeko zerbitzuak lizitzeko gomendioak, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun-eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan / Recomendaciones para la licitación de los servicios de coordinación de seguridad y salud durante la ejecución de la obra, en el ámbito de aplicación del RD 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción.

Argitaraldia / Edición: 1.a. 2024ko iraila / 1.^a edición, septiembre de 2024.

Ale-Kopurua / Tirada: 200 ale / 200 ejemplares.

Egileak/ Autoría: OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

©: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

OSALAN- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Argitaratzailea / Edita: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamita Bidea z.g./ Camino de la Dinamita s/n 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimaketa / Diseño, fotocomposición e Impresión:

Fotocomposición IPAR, S. Coop.
Zurbaran Kalea 2, 4- behe. 48007 Bilbao (Bizkaia).

Lege-gordailua /

Depósito Legal: LG BI 01225-2024

Oharra: Osalanek eskerrak eman nahi dizkio Visesa sozietate publikoari dokumentu hau egiten laguntzeagatik eta ekarpenak egiteagatik.

Aurkibidea

1. Esleipenerako kaudimen-irizpideak	6
1.1. Kaudimen teknikoa	6
1.2. Finantza- eta ekonomia-kaudimena	7
1.3. Gutxieneko kaudimen materiala	7
2. Baldintza tekniko orokorrak	8
2.1. Eginkizunen muga eta irismena	8
2.2. Ordezkapenak eta urraketen ondorioak	13
2.3. Sustatzailearen betebeharrak	13
2.4. Prestazioen ikuskaritza	14
2.5. Bateragarritasun-baldintzak	14
2.6. Lanak amaitzea	15
3. Kontratuaren Gutxi Gorabeherako Balioa / Administrazio-Klausula Berezien Agirian (AKBA) Jaso Beharreko Esleipen-Irizpideak	16



1. Esleipenerako kaudimen-irizpideak

1.1. Kaudimen teknikoak

Giza baliabideen gutxieneko hornidura: segurtasun eta osasuneko koordinatzaile bat, honako hau duena:

- **Titulu gaitzailea**, honako xedapen hauen arabera:
 - Obra-lanetako segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak (aurreratzean, segurtasun eta osasuneko koordinatzailea) ARKITEKTURA edo ARKITEKTURA TEKNIKOAK titulazioa eduki beharko du, baldin eta obraren xedea Eraikuntza Antolatzeko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen (EAL) 2.1.a) artikuluan aipatzen diren erabileretarako eraikinak eraikitzea bada, hau da, administrazio, osasun, erlijio, egoitza (forma guztietan), irakaskuntza eta kulturarekin lotutako erabilera izango duten eraikuntzak.
 - Gainerako kasuetan (EALren 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erabilerak), segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak ARKITEKTURA, ARKITEKTURA TEKNIKOAK, INGENIARITZA edo INGENIARITZA TEKNIKOAK titulazioa eduki beharko du, kasuan kasuko espezialitateen eta eskumen espezifikoaren arabera.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: titulazioen kopiak.

- Segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak laneko segurtasun eta osasunaren gaineko prestakuntza espezifikoak edukitzea **baloratuko da**: LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (gutxienez laneko segurtasunaren espezialitatea duena) edo ERAIKUNTZA-OBRAKO KOORDINATZEKO IKASTAROA (200 orduko iraupena).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: titulazioen kopiak eta curriculum vitaeak.

- Obrarako izendatutako segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak azken hiru urteetan obrak egiten segurtasunaren gainean **egiaztatu duen esperientzia baloratuko da**, obra-koordinazioko eginkizunak ziurtatuz.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: antzeko obretako zerbitzuen adierazpena, elkargoko ziurtagiriak edo enpresa enplegatzailearenak.

- **Ordezkapenak** Aldi baterako ordezkapenatarako kaudimen tekniko eta profesional baliokidea duen fakultatibo bat edukitzea.

1.2. Finantza- eta ekonomia-kaudimena

- **Erantzukizun zibileko aseguru**a arrisku profesionalen zioz, obra-motaren edo arriskuen larritasunaren arabera honako hau edo altuagoa izango dena: 600.000 € (obra handien edo arrisku garrantzitsuen kasuan) eta 300.000 € (obra txikien kasuan).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: aseguru-polizaren kopia, haren estaldura adierazten duena, eta ordainagiria.

1.3. Gutxieneko kaudimen materiala

- Bulegoa eta, horren barruan, erantzungailu automatikoa duen telefonoa, posta elektronikoa eta arreta emateko telefono mugikor bat.
- B mailako gidabaimena eta bidaietarako ibilgailu bat, bisitak bermatu ahal izateko.
- Maila informatikoan nahiz telefono mugikor bidez komunikazio egokia izan eta, beraz, eginkizunak behar bezala betetzeko bitarteko osagarriak.



2. Baldintza tekniko orokorrak

2.1. Eginkizunen muga eta irismena

Segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoa bete beharko du gutxienez, eta 171/2004 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako eginkizunak garatu, 1627/1997 Errege Dekretuan eta LAPLren 14. xedapen gehigarrian ezarritako koordinazio-bitartekoak baliatuz.

Legediak obran esku hartzen duten teknikariei esleitzen dizkien erantzukizunak gorabehera, obraren koordinazioaren barruan segurtasunaren eta osasunaren arloan bete behar diren eginkizunak gutxienez indarreko legedian ezartzen diren horiek dira. Gainera, beste batzuk ere **baloratu litezke**, honako atal hauetan jasotakoaren arabera:

Aurretiaz egin beharrekoak

Obrak hasi baino lehen, segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak honako hauek egin beharko lituzke:

- Zuzendaritza Fakultatiboko gainerako teknikariekin, enpresa kontratista nagusiarekin eta obra-buruarekin harremanetan jarri, segurtasunaren eta osasunaren gainean jarduteko jarraibideak ezartzeko.
- Lanen eragina jasan dezaketen obra eta inguruak adierazi, enpresa kontratistarekin batera.
- Segurtasun eta Osasun Plana, edo, hala badagokio, Kudeaketa Prebentiboko Agiria egiteko orduan aholkuak eman (enpresa kontratista bakoitzak aurkeztuko du hala behar duten obretan).
- Egiaztatu kontratek eta azpikontratek kontratatutako obra eta zerbitzuetarako arriskuen ebaluazioa eta jarduera prebentiboaren planifikazioa egin dutela, eta lantokian lan egingo duten langileen gainean prestakuntza eta informazioko betebeharrak bete direla.

Segurtasun eta Osasun Plana (SOP) eta Kudeaketa Prebentiboko Agiria (KPA)

- Obra publikoan, koordinatzaileak Segurtasun eta Osasun Plana edo, hala bada-gokio, Kudeaketa Prebentiboko Agiria aztertuko du, enpresa kontratistak aurkeztutakoa hala eskatzen duten obretan, eta TXOSTEN bat egingo du, kontratazio-organora igortzeko, hark onartzen baitu plana.

Txosten horretan aurkeztutako Planarekin eta Kudeaketa Prebentiboko Agiriarekin ados dagoen ala ez adieraziko da, arrazoiak azalduta.

- Era berean, onartutako SOPen edo balioetsitako KPAn eranskina edo eranskinak eskatu beharko ditu koordinatzaileak, eta dagokion txostena egin, obrak garatu bitartean edozein aldaketa badago edo aurreikusi gabeko eraikuntza-irtenbideak erabiltzen badira, eta, beraz, obraren segurtasunari buruzko agirian jaso ez diren arriskuak sortzen badira. Nolanahi ere, eranskin horiek entregatu beharko zaizkie aldatzen diren arrisku eta prebentzio-neurrien eraginpean dauden azpikontratei eta langile autonomoei.
- Obraren SOPen edo KPAn kopia eguneratua Zuzendaritza Fakultatiboaren esku dagoela kontrolatuko du, hala badagokio, bai eta bertan esku hartzen duten enpresetako prebentzioaren gaineko erantzukizunak dituzten pertsona edo organoen eta langileen ordezkarien esku ere.
- SOPen edo KPAn aurreikusitako neurriak aplikatzen direla ziurtatzeko jarraipena egingo du, enpresa kontratistek dituzten erantzukizunak oztopatu gabe.

Segurtasun eta osasuneko aurrekontuaren hileko ziurtapenak

Lan-arriskuen prebentzioko partidak ordaintzeko Zuzendaritza Fakultatiboaren ziurtapenak baliatuko dira, halakorik badago. Horietan, segurtasunaren koordinatzailearen adostasuna agertzea **komeni da**. Partida neurgarri guztiak benetan egindako unitateen arabera fakturatuko dira.

Gorabehera Liburuan idatzi beharrekoak

Gorabehera Liburuan idatzi beharrekoen artean jaso beharko da ea aurreko ohar edo iruzkin bat errepikatu den, edo, aldiz, lehen iruzkin edo oharra den. Idatzitakoa aurretik jasotako ohar edo iruzkinen bat ez betetzearen gainekoa bada edo arrisku larri eta berehalakoa eragiten badu, 24 orduko epean kopia bat bidali beharko zaio obra dagoen probintziako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari.

Koordinazio-bilerak (aktak)

Koordinazio-bilerak obraren jarduerak eskatzen duen maiztasunaren arabera egingo dira, eta, edonola ere, hilean bilera bat egingo da gutxienez, kontrata nagusiekin, azpikontratekin eta langile autonomoekin, dagokion akta eginda.



Haietan:

- Hurrengo asteetan garatuko diren lanei SOP edo KPA aplikatu behar zaien planifikatuko da, egon diren lan-istripuei buruzko informazioa emanaz, horiek iker-tuz eta hartu beharreko neurriak ezarriz, eta, hala badagokio, neurri horiek SOPera edo KPara eta Gorabehera Liburura sartuz. Egoera horien berri emango zaio sustatzaileari.
- Aldi berean edo ondoz ondo egingo diren jarduerak eta lan-faseak koordinatu egingo dira, bai eta lan-metodoak zuzen aplikatzen diren kontrolatzeko ekintza eta eginkizunak ere.
- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa zehaztuko da. Hala, artikuluko hori garatzen duen 171/2004 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, esku hartzen duten enpresei berariaz azalduko zaizkie beraiek garatutako jarduerari eragin diezaieketen arriskuak eta arrisku horiek prebenitzeko hartuko diren neurriak.

Obran egotea eta agiri batean jasotzea –Bisitak–

Lan-metodoak zuzen aplikatzen direla kontrolatzeko ekintza eta eginkizunen jarraipena egingo du, obran bertan egonda, jardueraren eta obraren konplexutasunaren arabera eskatzen den maiztasunarekin (esku hartzen duten enpresen kopurua, lanen iraupena, zailtasun teknikoak...), eta gutxienez astean bisita bat eginda, obran dauden eta enpresetako langileei eta parte hartzen duten langile autonomoei eragin ahal die-ten arriskuatarako egokiak eta nahikoak diren jarraibideak eta arrisku horiek prebenitzeko hartu beharreko neurriak azalduz.

Baldintza-agirian obraren fasearen arabera gutxieneko maiztasun bat ezartzea komeni da. Hona hemen gida moduan erabil daitekeen koadroa:

FASEA	
Indusketa * Indusketa harkaitz tupa gogorrean, % 20tik gorako proportzioan, edo indusketa-teknika berezien erabilera horma edo pantailetan edo lursailak egonkortzeko lanetan.	Astean bisita 1 * Astean 2 bisita
Egitura	Astean 2 bisita
Itxiturak/estalkia/iturgintza/instalazioak * Itxiturak jartzeko eta fatxadak estaltzeko sistema ezohikoak, besteak beste, gortina-hormak, profil-estalki berezia, hormigoizko geruza, estalki berezia, azalera arautua eta abar.	Astean 2 bisita * Astean 3 bisita
Akaberak	Astean 2 bisita
Erremateak	Astean bisita 1

URBANIZAZIO OSAGARRIA	Astean 2 bisita
ERREFORMAK ETA KONPONKETAK	Astean bisita 1

Lehen aipatutako bisita-kopurua izango da gutxieneko gisa ezartzen dena. Edonola ere, esleipendunak kopuru hori handitzea proposatu ahalko du, eraikuntza edo koordinazioaren konplexutasunaren eta obraren tamainaren arabera. Hala eginez gero, bisita bakoitzean idatziko duen ikuskaritza-aktan horren berri jaso beharko du. Hileko ziurtagirian jasotako bisita-kopuruan ez dira zenbatuko sustatzaileak aldeztu aurretik onartu ez dituenak.

Sustatzaileak asteko bisita-kopurua areagotu ahalko du, egokitzen jotzen bada, Lan Agintaritzak edo Organismo Autonomoek egindako adierazpen eta emandako aholkuen ondorioz, bai eta eraikuntza edo koordinazio aldetik konplexuak diren obretan ere.

Asteko bisiten iraupena kasuan kasuko eginkizunak betetzeko beharrezkoa dena izango da.

Gomendagarria da, obrara egiten den bisita bakoitzeko, segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak idatziz jasotzea bisita, unean-uneko fasearen arabera, eta Segurtasun eta Osasun Planak edo Kudeaketa Prebentiboko Agiriak ezartzen dituen aurreikuspenak kontuan hartuta. Horretarako, Gorabehera Liburua erabiltzea gomendatzen da. Bertan jasoko dira, hain zuzen ere, antzemandako anomaliak (bakarrak edo errepikatuak), iruzkinak, arau-hausteak eta horiek zuzentzeko kontratei, azpikontratei eta langile autonomoei emandako jarraibideak, enpresa kontratistak sinatuta eta sustatzaileak kopia jasota.

Administrazio-agiriak prestatzea eta kudeatzea

Proiektuak Ikuskatzeko bulegoaren edo organo baliokidearen eskutik jasoko du Gorabehera Liburua, eta indarreko araudiaren arabera mantenduko du, bertan jasotakoaren arabera jakinarazpenak eginez sustatzaileari, eta Ikuskaritzari eta Laneko Lurralde Ordezkaritzari, araudiak hala eskatzen duen kasuetan.

Baldintza-agirian Lan Ikuskaritzaren eta Osalanen bisitetan koordinatzaileak administrazioari lagunduko diola jasotzen bada, positiboki baloratuko da.

Lanak gelditzea

Segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak lan jakin bat edo obra osoa gelditzeko eskumena izango du, arrisku larria eta berehalakoa eragiten bada edo zabarkeria nabarmena antzematen bada. Hala eginez gero, halaxe jakinarazi beharko dio sustatzaileari, Zuzendaritza Fakultatiboari (hala badagokio), kontratei, azpikontratei (eragina jasaten badute), langileen ordezkariei, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari.



Segurtasunaren eta osasunaren gaineko urraketak antzematen direnean, lanak gelditu egingo ditu, eta enpresa kontratistei neurri egokiak hartzeko eskatuko die.

Gorabehera baten larritasuna edo premia dela-eta zuzenean jakinarazi behar bazaio Zuzendaritza Fakultatiboari (halakorik badago), kasuaren larritasuna kontuan hartuta metodorik egokiena baliatuko da (telefonoz, posta elektronikoz edo aurrez aurre). Jakinarazpen horren berri emango zaio sustatzaileari, lehen aipatutako bitartekoren bat erabilita, hura jakitun jarri eta ondore egokiak izan ditzan.

Sarrerak kontrolatzea

- Enpresa kontratistak obrarako sarrera kontrolatzeko proposatzen duen prozedura baliozkotu eta ikuskatu beharko du, bai pertsonena, bai ibilgailu, makina eta ekipoena.
- Obrarako sarrerak kontrolatzeko prozedura eraginkortasunez ezartzen dela ikuskatuko du.
- Obran enpresa kontratistak «obra bisitatzeko prozedura» bat ezartzea eskatuko eta ikuskatuko du, gutxieneko irizpideak betetzen direla egiaztatuz: bisitarien arriskuen eta prebentzio eta larrialdiko neurrien gaineko alde aurreko informazioa ematea, bisitarien datuak erregistratzea, bisitan zehar laguntzea, norbera babesteko ekipoak hornitu edo eskatzea, eta abar.

Txostenak egitea

Koordinatzaileak hileroko txosten bat idaztea baloratuko da, sustatzaileari helarazteko, berau egin eta hurrengo hilabeteko lehen zazpi egunen barruan. Txosten horretan, bere jarduerak jasotako egon diren gorabeheren eta sustatzaileak legez hartu behar dituen neurri buruzko azalpenak emango ditu. Txostenean, gutxienez, obra garatu edo aldatzean eskatzen dena gorabehera, honako hauek jasoko dira:

- Koordinazio-bilerak.
- Gorabehera-liburuan idatzitakoa, eta horrek izan duen garapena eta ebazpena.
- Koordinatzaileak emandako jarraibideen urraketa errepikatua enpresa kontratistaren edo esku hartzen duen enpresetako edozeinen aldetik.
- Astean egin diren bisitak.
- Laneko segurtasun eta osasunaren gaineko eskumena duten administrazioen bisitak edo errekerimenduak.
- Lanen etenaldiak, segurtasunerako eta osasunerako arrisku larri eta berehalakoen ondorioz, bai eta hartu diren neurriak eta lanak berriz hasteko aurreikusitako den data ere.
- Istripu hilgarri, oso larri, larri edo arinen baten edo gorabeheraren baten ondoriozko aparteko egoerak.

2.2. Ordezkapenak eta urraketen ondorioak

Oporretan, bajetan edo justifikatutako beste hutsune batzuetan, koordinatzaileak aldeztu aurretik aldi baterako ordezko bat izendatuko du, inola ere ez daitezkeen egon eginkizunak eta erantzukizunak bete gabe, eta, beraz, baldintza-agirian gutxieneko gisa ezartzen diren obra-bisitak behar bezala bete daitezkeen.

Ordezkatuko den pertsonaren pareko kaudimen tekniko eta profesionala duen fakultatibo bat izango da aldi baterako ordezkapena egingo duena. Premiazko eta salbuespenezko kasuetan izan ezik, Administrazioari gutxienez 15 egun natural lehenago jakinarazi beharko zaio ordezkapena. Baldintza-agirian betebeharrak ez betetzearen ziozko zehapen ekonomikoak ezartzea gomendatzen da, bai eta kontratua bertan behera uzteko aukera ere, baldin eta urraketa hori errepikatzen bada edo proposatutako bisiten gutxienez erdia egiten ez badira. Halaber, beste koordinatzaile bat izendatzeko aukera ere jasotzea komeni da.

2.3. Sustatzailearen betebeharrak

Sustatzaileak honako dokumentazio hau jarriko du esleipendunaren eskura:

- Sustatzailearekin hitz egingo duen solaskidearen izena eta harremanetarako datuak.
- Arkitektura eta ingeniarietako proiektuen egileen eta Zuzendaritza Fakultatiboaren izena eta helbidea.
- Oinarrizko proiektua eta egikaritzakoa, osorik, administrazio publiko eskudunaren Proiektuak Ikusatzeko Bulegoaren txostena barne, edo, bestela, dagokion elkargoaren oniritzia duena.
- Azterketa geoteknikoa, halakorik badago.
- Aseguru-enpresaren edo, hala badagokio, aseguru-etxearen izena eta helbidea.
- Obrak hasteko eta amaitzeko aurreikusitako dataren jakinarazpena. Lanak etenez gero berriz hasteko aurreikusitako dataren jakinarazpena.
- Enpresa kontratisten izena eta helbidea; horiek, era berean, azpikontratista eta langile autonomoen izena eta helbidea jakinarazi beharko dituzte obran esku hartzen hasi baino lehen.

Obrak egin bitartean aipatu datuak aldatzen badira, sustatzaileak informazio hori emango beharko dio esleipendunari, ahalik eta azkarren.

Sustatzaileak txaboletan segurtasun eta osasuneko koordinatzailearentzat lantoki bat aurreikusteko eskatuko dio enpresa kontratistari. Leku horretan, eskatzen den dokumentazioa artxibatu eta egiaztatuta ahaliko du.



2.4. Prestazioen ikuskaritza

Sustatzaileari dagokio esleipendunari eskatutako lanak ikuskatzea.

Gomendagarria da sustatzailearen teknikariak aldian-aldian obrara edo esleipendunaren bulegoetara bertaratzea, beharrezkotzat jotzen denaren arabera, lanak era egokian garatzen ari direla egiaztatuta eta egon daitezkeen garabeherak ebazteko.

2.5. Bateragarritasun-baldintzak

Gomendioak:

- Koordinazio eta zuzendaritzako eginkizunak guztiz bereizita egotea, segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak gaitasun, irizpide eta independentziaz jokatu dezan, obra berean bi kontzeptuen esleipendun izan gabe.
- Kontratuaren esleipendunaren eta obra egingo duten enpresen artean lan-edo merkataritza-independentzia osoa egotea, eta enpresa horiek lan horren eremuan kontratatutako Kanpoko Prebentzio Zerbitzuekin edo Laguntza Teknikoekin inolako lan-harremanik ez edukitzea. 39/1997 Errege Dekretuaren 17. artikulua arabera, Kanpoko Prebentzio Zerbitzu gisa egiaztatutako erakundeek ez dute inolako lotura komertzial, finantzario edo bestelakorik izan behar hitzartutako enpresekin, Kanpoko Prebentzio Zerbitzu gisa duten jardueraz harago, beren independentzian eta jardueren emaitzan eragin baitezake.

39/1997 Errege Dekretua betetzen dela bermatzeko, eskaintza aurkezten duen enpresa orok (Kanpoko Prebentzio Zerbitzua izan nahiz ez) idatziz adieraziko du berariaz uko egiten diola, esleipendun suertatuz gero, administrazio deitzailearekin beste edozein kontrataziotan parte hartzeari espediente honekin lotutako obretan, edo obra-kontratazio horietara aurkezten diren enpresetan kanpoko prebentzio-zerbitzuak emateari. Berariazko uko hori aurkezten ez bada, lehiaketatik kanpo geratuko da.

Aipatutako lan-harreman edo harreman komertzialen bat gertatzen bada, esleipendunak administrazio deitzaileari jakinarazi beharko dio.

Gainera, ziurtagiri edo adierazpen berariazkoa aurkeztu beharko du, materialak eta osagaiak ekoizten dituzten sozietateen eta enpresa sustatzaile, eraikitzaile eta instalatzaileen independentzia juridiko eta ekonomiko osoa adieraziz.

2.6. Lanak amaitzea

Segurtasunaren eta osasunaren koordinaziorako lanak amaitu egingo dira sustatzaileak obren harrera egiten duenean, erreserbarik gabe, salbu eta obrak gauzatzeko enpresa kontratistarekin adostuta zuen kontratua aldez aurretik indarririk gabe uzten badu. Sustatzaileak enpresa kontratistarekin obra-kontratua aldez aurretik indarririk gabeko uzteko edo luzatzeko aukera dauka.



3.

Kontratuaren Gutxi Gorabeherako Balioa / Administrazio-Klausula Berezien Agirian (AKBA) Jaso Beharreko Esleipen-Irizpideak

Eraikuntza-obran segurtasun eta osasunaren koordinazio-zerbitzuak emateko kontratazio publikoak izaera intelektualeko prestazio gisa jo beharko liriteke, erreserbarik gabe, eskaintzak esleitzeko prozesuetan kalitatean oinarritutako esleipen-irizpideak aplikatzearen ondoretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL) ezarritakoaren arabera.

Eraikuntza-obretan segurtasuna eta osasuna koordinatzeko zerbitzuak emateko helburua duten kontratuak esleitzean, gomendagarria da:

- Esleipen-irizpide bat baino gehiago aplikatzea, faktore ekonomikoa ez dadin izan esleipenaren faktore erabakigarri bakarra.
- Lizitazio-prozeduretan kalitate-irizpideak sartzea, esleipen-irizpideen gutxienez % 51 ordezkatzuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera.
- Kontratua arautzen duten baldintza-agiriek parametro objektiboak ezartzea eskaintzen anormaltasun-egoerak identifikatzeko eta, hala badagokio, bereziki baxuak diren eskaintzak baztertzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera.